BASARRIRI ERANTZUNA

Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko
Neurria: Hamarreko txikia (hg). Bost puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa.



Inaxi Etxabe (1933 Oikia – 2020 Zarautz, Gipuzkoa)

Basarri bertsolari ezagunak "Aitonaren malkoak" sorta argitaratu zuen Anaitasuna aldizkarian, 80 urteko gizon batek esan zizkionak azalduz. Aitona haren mezu nagusia zen "gauzak okerrera doaz, emakumeen jokabide berriengatik" ("Sinista zazu emakumeak galdu bear gaituztela").

Inaxi Etxabek Basarriri erantzuna sorta argitaratu zuen bueltan, leku berean. 1955. urtea zen; "Oikina'ko neska" ezizenez sinatu zuen sorta.

1 Basarri jauna, zuk badaukazu
aiton bat maite **dezuna**
zeuk diozunez berekin oso
sarri tratatzen **dezuna**
eta zuk ontzat ematen dezu
harek esaten **dizuna**.
Irakurrita daukat nik ondo
bertsotan jarri **dezuna**.
Hemen dijoakizu, ba, orain
neskatx baten **erantzuna**.

2 Emakumeak utzi gaituzu
oso okertzat **hartuta**
munduan diran zorigaitz danak
gure lepora **botata**.
Gizasemeak ote dauzkatzu
oso santutzat **hartuta**?
gai honen kontra zer esanikan
ez zait neri orain **falta**
BIHOTZA NOLA JARRIA OSO
DAUKATEN **MINBERATUTA**.

3 Bizio txarrik asko badago
gizasemeen **artian**
begiratzea nahikoa dezu
auzo-taberna **atian**
egunero han ikusten dira
pozik asko **zurrutian***
jakinagatik hori dutela
bere buruen **kaltian**.
Ez dira hala ere geldituko
patrikak hustu **artian**.

4 Igande goiza etorri eta
beti gauza bat **buruan**:
denborik ezin pasa degu-ta
aurrera "**txikiteuan**"*.
Eguerdirako jarriko dira
ganberruaren **moduan**
hizkuntza ederrik entzungo dezu
gero beren **inguruan**.
Nik ezin neurtu ohitura horrek
ze kalte egiten **dituan**.

5 Nobelak* ere ikusten dira
gaur askotxoren **eskutan**
esango nuke emakumeak
haina badirala **hontan**
zenbat gastatzen duten ez jakin
zigarro eta **zinetan**
jokoan berriz zer esanik ez
taberna eta **plazetan**.
Miseriarik ez da faltatzen
gero fameli **askotan**.

6 Noranahi juan nahi dutenian
ez dute falta **dirurik**
emakumeak ibili behar
zorrak ordaindu **ezinik**.
Etxean falta dan gauzagatik
ez dutelako **ajolik**
NESKATXAK! garai datorrenian
ez galdu zuen **zentzunik**
horrelako bat lagun hartuta
ez dagolako gauz **onik**.

* ***zurrutian*** = *trinkatzen*
txikiteuan = *poteoa; tabernaz taberna basoerdi bat ardo hartuz*
Nobelak = *Eleberriak, istorio liburuak*